

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2024 Erabakia, otsailaren 6koa. Onespena ematea irabazteko xederik gabeko erakundeek enplegurako prestakuntza emateko laguntzen 2024ko deialdiari

Langileen prestakuntza lehentasunezko balio estrategikoa da egungo aldaketa teknologikoko, ekonomikoko eta sozialeko prozesuetan. Gainera, funtsezko tresna da enpleguaren egonkortasunerako eta kohesio sozialerako.

Arabako prestakuntza zentroek eta erakundeek prestakuntza eskaintza zabala dute, eta eskaintza hori enpresek barrurako sustatu dituzten prestakuntza planen osagarri da, edo, halakorik ezean, haien prestakuntza beharrei erantzuten die.

Prestakuntzaren xedea da biztanleria aktiboari ezagutzak eta lanabesak ematea enplegarritasuna hobetzeko, Arabako enpresek eskatzen dituzten gaitasunei, metodoei edo teknikei buruzko gaitasun profesionala eskuratuta, eta teknologia berriak sartzen laguntzea, eta horrela, ekoizpen sistema orokorraren lehiakortasuna hobetzea.

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak dauzkan eskumenen artean Araban prestakuntzarako laguntzen programak eta planak kudeatzea eta izapidetzea daude; horien bitartez Arabako Lurralde Historikoan enplegurako prestakuntza ekintzak egitea bultzatzen eta sustatzen du.

Horretarako, egokitzen jotzen da enplegurako prestakuntzarako bi ekintza mota gauzatzeko (enplegurako prestakuntza ikastaroak eta zabalkunde jardunaldiak) laguntzen deialdia egitea.

Deialdi honek beste helburu bat ere badauka: deialdiaren eremu osoan aurrera egitea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean.

Arabako Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zien Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Oinarri horiek onestearen ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren, eta publikitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, 2024ko ekitaldian irabazteko xederik gabeko erakundeek prestakuntza ekintzak egiteko laguntzen deialdia egin behar da.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea irabazteko xederik gabeko erakundeek enplegurako prestakuntza emateko laguntzen 2024ko deialdia, erabilgarri dagoen aurrekontu esparruan. Laguntzetarako ezartzen den gehieneko zuzkidura 600.000,00 euro da. Deialdia erabaki honen eranskinean dago.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta ebazpen honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak 2024ra luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2023rako aurrekontuko 30502. G/241300/48100301 aurrekontu partidaren kargura ordainduko dira. Zenbatekoa 600.000,00 euro da; 570.000,00 euro ikastaroetarako eta 30.000,00 euro jardunaldietarako.

Deialdi honetan adierazten den aurrekontu partidaren hasierako hornidura dagokion aurrekontu transferentziaren bitartez gehitu ahal izango da, ehuneko 100 arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. Artikulua arabera, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA
ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EMATEKO LAGUNTZAK
(IKASTAROAK ETA ZABALKUNDE JARDUNALDIAK)
2024ko deialdia

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdiaren xedea da lanbide heziketako zentroek, fakultateek eta unibertsitate eskolek eta irabazteko xederik gabeko erakundeek prestakuntza ekintzak (enplegurako prestakuntza ikastaroak eta zabalkunde jardunaldiak) egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea, biztanle aktiboen (lanean ari direnen zein lanik ez dutenen) gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko eta gure ekonomiaren lehiakortasuna areagotzeko.

2. artikulua. Enplegurako prestakuntzako ekintzak: motak

2.1. Diruz lagundu daitezkeen prestakuntzarako ekintzak bi motatakoak izan daitezke:

I. Enplegurako prestakuntzarako ikastaroak biztanle aktibo guztientzat (lanean ari direnentzat zein lanik ez dutenentzat).

II. Zabalkunde jardunaldiak.

2.2. Prestakuntza ekintzek jorratu beharreko gaiak zuzenean egon beharko dira lotuta Arabako produkzio sistemarekin eta Arabako enpresen eta lan merkatuaren langile beharriekin. Beraz, kultura, aisia eta astialdia eta beste arlo batzuk ez dira landuko prestakuntza ekintzetan, eta kanpoan geratuko dira, halaber, administrazio publikoetako funtzionarioentzako edo lanpostu nahiz kargu publikoa dutenentzako prestakuntza ekintzak.

3. artikulua. Prestakuntza emateko modalitateak

3.1. Enplegurako prestakuntza ikastaroak dagokienez, bi modalitate ezartzen dira, ikastaroak emateko moduen arabera:

a) Zuzeneko prestakuntza, bai aurrez aurre, ikastaroa emateko gela edo espazio egoki batean, bai birtualki, ikastaroa egiten duten ikasleak eta ikastaroa ematen duten irakasleak aldi berean telematikoki konektatuz.

Prestakuntza birtualaren kasuan, bitarteko telematikoen bidez prestakuntza ematen duten langileek bertan egon behar dute zuzenean, aldi berean ezagutza berak transmititzeko klasea telematikoki jarraitzen duten prestakuntzaren hartzailerei. Prestakuntza aldi berean eman behar zaie prestakuntza ekintzan parte hartzen duten pertsona guztiei, eta, beraz, honako hau aldatuko da soilik aurrez aurreko prestakuntzari dagokionez: prestakuntza espazio fisiko berean jaso ordez, hartzailleetako batzuek telematikoki jasoko dute aldi berean.

Aldaketarik badago ikastaroa emateko moduan (zuzenean, aurrez aurre edo/eta modu birtualean) Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, eta aldaketa horren arrazoiak adierazi beharko zaizkio.

b) Teleprestakuntza, deialdi honen ondorioetarako, baliabide telematikoen bidez (ez zuzenean) emandako prestakuntza da. Ikasleak egokien zaien unean konektatzen dira prestakuntza jasotzeko, eta, gainera, tutoretza ordu batzuk dituzte, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko, eta, horrela, erabilitako materialen edukiak osatzen dituzte.

3.2. Zabalkunde jardunaldiei dagokienez, zuzenean soilik egin ahal izango dira, bai aurrez aurre, jardunaldia emateko leku egokian, bai birtualki, jardunaldian parte hartzen duten langileek zuzeneko konexio telematikoa eginez jardunaldia ematen duten irakasleekin.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

Deialdi honetan, onuraduntzat joko dira ondoren azaltzen diren erakunde motak, baldin eta sozietatearen egoitza Araban alta emanda badute edo gutxienez egoitzaren bat edo zerbitzu zentzoren bat lurralde horretan badute:

a) Enplegurako prestakuntza ikastaroak:

– Lanbide heziketako zentroak, publikoak zein irabazteko xederik gabekoak.

– Unibertsitate fakultate eta eskolak, publikoak zein irabazteko xederik gabekoak.

– Irabazteko xederik gabeko erakundeak (fundazioak, elkarteak...), baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan edo prestakuntza erakundeen estatuko erregistroan erakunde gisa ziurtatuta edo erregistratuta badaude.

Deialdi honetako enplegurako prestakuntza ikastaroen ondorioetarako, titulartasuna ehuneko 100 publikoa duten erakundeak, edozein sozietate mota dutela ere, irabazteko xederik gabeko erakundeen parekoak izango dira.

b) Zabalkunde jardunaldiak: irabazteko xederik gabeko erakundeak.

Ez dira inolaz ere laguntza hauen onuradun izango irabazteko xedea duten erakundeak.

5. artikulua. Erakunde eskatzaileen betekizunak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

5.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen erregistro elektronikoa, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

5.2. Entitate eskatzaileek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean daudela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin diezairoke aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kontura.

Beste foru aldundi edo Arabako Lurralde Historikoaz bestelako lurralde erkide bateko ogasunaren aurrean zerga betebeharrak bete behar baditu pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak edo onuradunak, zerga betebeharren eskakizunak zergak ordaintzeko betebeharra duen zerga administrazio bakoitzari egiten dio erreferentzia. Eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Titularitate publikoko erakundeek ez dute justifikatu behar Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela.

5.3. Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 23.2 artikuluan.

Halaber, ezingo dute parte hartu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexua dela eta bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ez eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrekin zehatutakoek ere, hala xedatzen baitu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua.

5.4. Lanbide Heziketako ikastegiak edo unibertsitate fakultateak edo eskolak ez diren erakunde eskatzaileek, eskaera aurkezteko garaian, frogatu beharko dute badutela gutxienez egoitza bat edo zerbitzu zentro bat Arabako Lurralde Historikoan, dela jabetzan, dela alokairuan.

5.5. Laguntza hauen onuradun diren irabazteko xederik gabeko erakundeek (fundazioak, elkarteak, etab.) legez eratuta egon beharko dute, eta, gainera, diruz lagunduko den prestakuntza jarduerak haien xede edo helburu sozialekin zuzeneko lotura izan beharko du.

Irabazteko xederik gabeko erakundeek agiri bidez egiaztatu beharko dute irabazteko xederik gabeko erakundeak direla. Horretarako, kasuan kasuko administrazio erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute.

Titulartasuna ehuneko 100 publikoa duten eta irabazteko xederik gabeko erakundetzat hartzen ez diren erakundeek titulartasuna ehuneko 100 publikoa dela egiaztatu beharko dute.

Aurreko urteetan aurreko bi egoeretako edozein egiaztatu bada, ez da berriz egiaztatu beharko, baldin eta egoera aldatu ez bada.

5.6. Enplegurako prestakuntza ikastaroak emango dituzten erakunde eskatzaileek, salbu eta Lanbide Heziketako ikastegiek eta unibertsitate fakultateek eta eskolek, frogatu beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan edo, hala badagokio, prestakuntza erakundeen estatuko erregistroan prestakuntzako erakunde gisa daudela egiaztatuta edo erregistratuta. Egiaztapen edo erregistro horrek dirulaguntzaren eskabidearen aurretikoa izan beharko du eta aurkeztutako frogagiriaren datak uneko urtekoa izan behar du.

5.7. Zabalkunderako jardunaldiengatik dirulaguntza eskatzen duten erakundeek agiri bidez argitu behar dute erakunde eskatzaileak jasandako BEZa zerga horren aitopenean kengarria den ala ez. Horretarako, 2023ko BEZaren behin betiko hainbanaketaren frogagiriak aurkeztuko dira. Atal hori behar bezala justifikatu ezean, ulertuko da jasandako BEZa ezin dela diruz lagundu.

6. artikulua. Deialdiaren homidura

6.1. Deialdirako 600.000,00 euro hornitu dira; hona hemen banaketa:

- 570.000,00 euro, ikastaroak egiteko.
- 30.000,00 euro, jardunaldiak egiteko.

Aurrekontu partida bakoitzean izan litezkeen funts soberakinen birbanaketa honela egingo da:

- Enplegurako prestakuntza ikastaroetan gerakinen bat izango balitz, zabalkunde jardunaldietarako eskaeretara zuzenduko litzateke.
- Zabalkunde jardunaldietan gerakinen bat izango balitz, enplegurako prestakuntza ikastaroetarako eskaeretara zuzenduko litzateke.

6.2. Deialdi honetako aurrekontu partiden hasierako hornidura handitu ahalko da, ehuneko 100 arte, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bidez, baldin eta gerakinik bada Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan.

7. artikulua. Zer den kanpo langilea eta zer barne langilea deialdi honetan

Deialdi honetan, barne langilea izango da eskaera aurkezten duen erakundearen langilea dena eta prestakuntza jarduera emateagatik diru kopuru zehatzik kobratzen ez duena. Aldiz, kanpo langilea izango da, eskaera aurkezten duen erakundearen langilea izan ala ez, prestakuntza jarduera emateagatik diru kopuru zehatza kobratuko duena.

Prestakuntza ekintza erakunde eskatzaileko bazkideek eta/edo parte hartzaileek eta/edo zuzendariek edo hari lotuta dagoen beste pertsonaren batek ematen badute, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 68.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, deialdi honetarako, barne langilezat baino ezingo dira hartu.

8. artikulua. Barne langileen kostuaren kalkulua deialdi honen ondorioetarako

Barne langileen kostuaren kalkulua egiteko, honako formula hau aplikatuko da: diruz lagundutako ikastaroan emandako eskola orduak bider erakunde eskatzaileari zenbat ateratzen zaion prestakuntza ematen duen pertsonaren kostua ordu bakoitzeko.

Ordu bakoitzeko kostuaren kalkulua egiteko, zatiketa hau egingo da: prestakuntza ematen duenaren ordainsariengatik erakundeak dituen ohiko kostuak zati pertsonan horren lanorduak guztira. Kalkulu hori egiteko, dirulaguntza eskatzen den urteko datuak erabiliko dira.

Urteko guztizko ordu kopurutzat hartuko da prestakuntza ematen duen barne langilearen guztizko lanorduak, baina, orduko kostua kalkulatzeko, ezin izango da 800 ordu baino gutxiago izan. Urteko lanorduen kopurua behar bezala justifikatzen ez bada, 1.700 ordu hartuko dira urteko lanordutzat.

9. artikulua. Prestakuntza ekintzak egiteko aldia

Dirulaguntzaren xede diren prestakuntza ekintzak deialdiaren ebazpena ematen denetik aurrera hasi beharko dira eta amaituta egon beharko dira 2024ko azaroaren 22rako.

10. artikulua. Ikastaro edo jardunaldi bakoitzeko aurkeztu beharreko agiriak

Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute ikastaro edo jardunaldi bakoitzeko eta honako agiri hauek erantsi:

– Eman beharreko ikastaroaren edukia azaltzen duen txostena; haren helburuak eta edukiak aipatu behar dira.

– Ikasleak hautatzeko irizpideak (ikastaroak badira soilik).

– Prestakuntzako ekintzaren programa.

– Ikastaroaren sailkapena gaiaren arabera: erakunde eskatzaileak adierazitako sailkapenaren justifikazio agiriak aurkeztuko dira.

– Zuzeneko prestakuntza izanez gero, irakasleen curriculumak.

– Teleprestakuntza:

- Erabiltzea aurreikusi den teleprestakuntza plataformari buruzko datuak; propioa, azpikontratatu edo doakoa den adierazi behar da.

- Ikastaroan tutore izango den pertsonaren edo diren pertsonen datuak eta curriculumak.

Edonola ere, prestakuntza ekintzaren aurrekontu ekonomikoa banakatuta egon beharko da, honako hauetan jasotako gastuen sailkapenaren arabera: enplegurako prestakuntzarako zuzeneko ikastaroei buruzko 17. artikulua, teleprestakuntza ikastaroei buruzko 19. artikulua eta zabalokunde jardunaldiei buruzko 26. artikulua.

11. artikulua. Prozedura izapidetzeko eskumena duten organoak

11.1. Dirulaguntza emateko prozedura Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak izapidetuko du, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren bidez.

11.2. Balorazio batzordea edo oinarri orokorrak arautzen dituen azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 6. artikulua aipatzen duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

• Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

• Kideak: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

• Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

11.3. Batzorde horrek ikastaro eta jardunaldi eskaerak baloratuko ditu, banaka, hautaketa eta balorazio irizpideen arabera (22. eta 29. artikulua).

Prestakuntza mota bakoitzaren barruan, lehentasunen hurrenkera bat zehaztuko du, lortutako puntuazio handienetik txikienera, eta hurrenkera horri jarraituz, eskatutako proiektu edo jarduerak bakoitzari egokitu ahal zaizkion dirulaguntzen esleipena proposatuko du, puntuazio handiena lortu dutenetatik hasita, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte.

Azken puntuazio tarteari dagozkion esleipenak –tarte horrek amaitzen du aurrekontu baliagarria– gerakin baliagarria hainbanatuz egingo dira, diruz laguntzekoa den proiektu edo jarduerak bakoitzaren aurrekontu diruz laguntzekoaren arabera, alegia.

11.4. Balorazio batzordeak ebazpenen proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, egoki diren ebazpenak eman ditzan.

11.5. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoaren bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz. Ebazpen horren aurka, zeinak administrazio bidea amaituko baitu, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegietan. Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, lehena aurkezteko hilabete izango da eta bigarrena aurkezteko bi hilabete.

11.6. Oro har, eskaera ezetsi dela ulertuko da, baldin eta berariazko ebazpena eman ez bada administrazio isiltasunari buruzko foru araudia urtarrilaren 3ko 4/1999 Legea egokitzen duen 1/1999 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko 14 apartatuan ebazpena emateko eta jakinarazteko ezarritako gehieneko 6 hileko epea igaro ondoren.

II. KAPITULUA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

12. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

Biztanle aktiboentzako (lanean ari direnak zein lanik ez dutenak) prestakuntzako ekintzek jaso ahal izango dute laguntza. Ekintza horiek lan merkatuaren beharrak eta eskariak bete behar dituzte, eta honako xede hauek eduki behar dituzte lehentasun:

- Langabeen enplegarritasuna eta lana duten langileen trebakuntza hobetzea.
- Arabako enpresek eskatutako jakintza, metodo edo teknikei buruzko gaitasun profesionala eskaintzea.
- Teknologia berrien sarrera erraztea eta ekoizpen sistema orokorraren lehiakortasuna hobetzea.
- Trebakuntza hobetzea lanbide trebakuntzaren estatuko sistemako profesionaltasun ziurtagiriren bat lortzea errazteko, aurretik sistema horretan sartzeko baldintzak beteta.

13. artikulua. Prestakuntza ikastaroen betekizunak

13.1. Ikastaro bat diruz laguntzeko, betekizun hauek bete beharko ditu:

- Ikastaroek, gutxienez, 10 ordu iraun behar dute.
- Dirulaguntzaren xede diren ikastaroko gastuen zenbatekoa 500,00 euro izan behar da gutxienez. Zenbateko horretan ez dira sartuko 17.2 artikuluan jasotako bidaia gastuak.
- Gutxienez 5 pertsonak hastea ikastaroa, eta, horrez gain, zuzeneko prestakuntzaren kasuan, artikuluko honetako 4. paragrafoko baldintzak betetzea, eta, teleprestakuntzaren kasuan, artikuluko honetako 5. apartatukoak.

5 pertsona horiek zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko ez dirulaguntzaren erakunde onuraduneko langileak, ez erretiratuak.

– Zuzeneko prestakuntzaren modalitatean, ikastaroaren zati presentziala Arabako udalerrri batean ematea oso-osorik.

Behin prestakuntza ekintza eginda, ez bada bete aurreko betekizunetakoren bat, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

13.2. Ikastaroetan, gehienez ere, 100 ordu lagundu ahal izango dira diruz.

13.3. Hainbat modulu edo atal dituzten ikastaroen kasuan, honako hauek hartuko dira kontuan laguntza jasotzeko:

– Modulukako ikastaroa prestakuntza ekintza bakartzat hartuko bada, moduluak koherenteak izan behar dira beren artean. Baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz moduluen artean ez badago koherentziarik, modulu bakoitza ikastaro bat izango da. Alderantziz, ikastaro independente gisa aurkezten badira ikastaro baten atal edo modulu izan daitezkeen prestakuntza ekintzak, horiek guztiak ikastaro bakartzat joko dira laguntza jasotzeko.

– Ikasletzat ikastaroaren modulu guzti-guztiak egin dituzten pertsonak bakarrik hartuko dira. Beraz, modulu batzuk bakarrik egiten dituztenak ez dira ikasletzat joko.

13.4. Zuzeneko prestakuntzaren modalitatean emandako ikastaroen kasuan, ikastaroa gutxienez 5 pertsonak hasteko baldintza bete dadin, pertsona horiek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute ikastaroa hasten den egunean edo hasi aurreko 30 egunen uneren batean:

- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea,
- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean kokatutako lantoki batean lan egitea,
- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean ikasketa arautuak egitea.

13.5. Teleprestakuntzako modalitatean emandako ikastaroen kasuan, ikastaroa egiten duten pertsona guztiak baldintza hauetakoren bat bete beharko dute ikastaroa hasten den egunean edo hasi aurreko 30 egunen uneren batean:

- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea,
- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean kokatutako lantoki batean lan egitea,
- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean ikasketa arautuak egitea,

14. artikulua. Teleprestakuntzako modalitatean ematen diren ikastaroetarako baldintza gehigarriak

14.1. Deialdi honen ondorioetarako, teleprestakuntzatzat hartuko da parte hartzaileek beren ikaskuntzaren erritmoa norberaren astira egokitzen dutenean. Horretarako, ikastaroko irakasleen tutoretza izango dute, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko, eta, horrela, erabilitako materialen edukiak osatuko dituzte.

Teleprestakuntzako modalitatean ez dira inola ere finantzatuko profesionaltasun ziurtagirien estatuko katalogoko prestakuntza ekintzak.

14.2. Aurkeztu beharreko eskabidearen ondorioetarako, teleprestakuntza ikastaro batean gehienez 10 ikasle izan ahal dira. Prestakuntza ikastaro berean 10 ikasle baino gehiago daudenean, 10eko kopuru horren gainetik dauden pertsonekin gai bereko beste ikastaro bat osatuko da, eta hartan ere 10 ikasleko muga izango da.

14.3. Teleprestakuntzako modalitatea eskaintzeko baldintzak:

1.– Edukiei dagokienez:

a) Teleprestakuntzako ekintzek irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat bermatu behar dute, aurrez aurreko modalitatekoek bezalaxe. Teleprestakuntzan, beharrezkoa da leku ezberdinetan dauden ikasleen, irakasleen eta baliabideen arteko elkarreragina izatea.

b) Edukiak PDF formatuan edo beste formatu batean jaiste hutsa ez da teleprestakuntza.

c) Erregistraturik geratu behar da ikasleek edukiak/ikasgaiak ikusi/egin dituztela.

d) Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen erakunde prestatzaileak helburuak lortzeko egokitzat jotzen duen iraupenarekin egin behar dute prestakuntza ekintza.

e) Iraupenaren ehuneko 75etik beherako konexioak dituzten parte hartzaileak ez dira parte hartzaile bukatutzat joko.

f) Behar bezala justifikatu beharko da ekintzarako proposatutako teleprestakuntza orduen kopurua.

2.–Tutoretza jardueri dagokienez:

a) Ikaskuntza prozesu sistematizatua dakarten euskarri didaktikoen bidez egin beharko da teleprestakuntza, eta tutoretza laguntzarekin osatu beharko da nahitaez.

b) Irakasleek prestakuntza prozesuan egindako tutoretza jarduera guztiak erregistratu beharko dituzte.

3.– Plataformak sortutako erregistroei dagokienez:

a) Informazioa hobeto tratatzeko, plataformak sortutako eta erregistratutako datuak emango dira, kalkulu orri edo antzeko euskarri informatikoan: parte hartzaileen jarduera datuak (lehen eta azken sarbideen datak, konexio orduen kopurua, egun desberdinen kopurua), eta egindako tutoretzei eta erantzundako kontsultei buruzko datu guztiak.

b) Plataformak ikaslea eta egindako jarduera guztiak erregistratu behar ditu. Horrez gain, txostenak editatzea ahalbidetu behar du, ikastaroko parte hartzaile bakoitza ikastaro bakoitzeko elementu eta jarduera bakoitzetik pasa dela jasotzeko, bai eta plataforman egindako klik bakoitzaren arteko denborak jasotzeko ere.

15. artikulua. Dirulaguntza jaso ezin duten ikastaroak

Honako ikastaro hauek ez dira diruz lagunduko:

– Gaia dela-eta, Arabako ekonomia edo lan jardueraren lehiakortasuna hobetzen nahikoa laguntzen ez dutenak.

– Nagusiki teorikoak edo orokorrak diren ikastaroak.

– Erakunde eskatzaileetako langileen eta/edo zuzendarien barne prestakuntza helburu duten ikastaroak.

– Erakunde eskatzailearen edo haren partaideen xedeekin eta berezko jarduerarekin lotuta ez dauden ikastaroak.

– Araututako hezkuntza eskaintzan sartuta dauden ikastaroak eta hezkuntza sistemak onartutako titulazio ofiziala ematen dutenak.

– Hizkuntza ikastaroak.

– Ibilgailuak, itsasontziak edo aireontziak gidatzeko ikastaroak, orga jasotzaileei eta/edo fabrika baten edo antzeko instalazio baten barrualdean zeregin logistikoetan erabiltzen diren bestelako elementuei buruzkoak izan ezik.

– Balorazio batzordearen iritziz deialdiaren helburu orokorraren barruan kokatzen ez diren ikastaroak.

16. artikulua. Eska daitekeen ikastaroen gehieneko kopurua eta ikasleen hautaketa

16.1. Erakunde onuradun bakoitzak eska ditzakeen ikastaroen gehieneko kopurua ezin daiteke izan honako hau baino handiagoa:

- Irakaskuntza arautuan 2.000 ikasle baino gehiago ez dituzten LHko zentroak: 20.
- Irakaskuntza arautuan 2.000 ikasle baino gehiago dituzten LHko zentroak: 40.
- Unibertsitate eskolak eta fakultateak: 20.
- Irabazteko xederik gabeko gainerako erakundeak: 20.

Irabazteko xederik gabeko gainerako erakundeen taldearen kasuan, lotutako erakundeek ikastaro eskabide bat baino gehiago aurkezten badute, lotutako erakunde horiek, guztiek batera, 25 ikastaro eskatu ahal izango dituzte, gehienez ere.

Entitate eskatzaile batek ikastaro gehiago aurkeztuz gero, baimendutako gehieneko kopuruaz gaindikoak ofizioz baliogabetuko dira, balioetsi gabe, eskatu diren hurrenkera berean.

Bi erakunde eskatzailearen edo gehiagoren arteko loturarik bada, eta erakunde horiek aurkeztutako ikastaroen baturak ezarritako muga gainditzen badu, ofizioz baliogabetuko dira eta ez dira baloratuko gehieneko kopurua gainditzen dutenak. Kasu horretan, Arabako Foru Aldundiaren erregistroan sarrera data zaharrena duten ikastaroak baloratuko dira, eta sarrera data bera badute, sarrera erregistroko zenbaki zaharrena dutenak hartuko dira kontuan. Zenbait ikastarok sarrera erregistroko zenbaki bera badute, erakunde eskatzaileak ikastaroen zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.

Artikulu honetan adierazitakoaren ondorioetarako, izaera publikoa duten LHko ikastetxeen eta unibertsitate eskola eta fakultateen kasuan, lehen adierazitako ikastaroen mugak eskaera aurkezten duen prestakuntza zentro bakoitzeko izango dira, IFZ komuna izan zein ez.

16.2. Deialdi honen ondorioetarako, teleprestakuntzako modalitatean emandako ikastaroen kasuan, ikastaro bakoitzak gehienez 10 ikasle izango ditu. Prestakuntza ikastaro berean 10 ikasle baino gehiago badaude, soberan dauden 10 pertsonarekin, eta ez gehiagorekin, gai bereko beste ikastaro bat osatuko da. Ikastaro bakoitza banan-banan baloratuko da, 22. artikuluan jasotako balorazio irizpideen arabera.

16.3. Erakunde eskatzaileek eskaeran adierazi behar dute nola hautatzen dituzten ikasleak, eta ahal dela, lehentasuna eman behar diete Lanbideren orientazio zerbitzuek eskatutako prestakuntza ekintzara edo antzeko batera bideratu dituztela frogatzen duten eskatzaile langabeei.

16.4. Erakunde eskatzailea sektore edo elkarte ekonomikoen federazioa edo elkarte baldin bada, sektorearteko ikastaroak baino ezingo ditu eskatu.

17. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak: zuzeneko prestakuntza ikastaroak

17.1. Zuzeneko prestakuntzaren modalitateko ikastaroak direnean, honako gastu hauek bakarrik lagundu ahal izango dira diruz, artikulua honetako 2. apartatuan ezarritako salbuespenarekin:

- a) Irakasle gastuak; ikastaroak dituen irakastorduei dagozkienak soilik
- b) Ikastaroa aurrera eramateko behar-beharrezkoa den materiala erosteko gastuak.

Horri dagokionez, ikastaroan zehar kontsumitzen den materialaren gastua soilik onartuko da dirulaguntzarako; horren berri amaierako memoria aurkezten denean eman behar da.

Ez dira inola ere onartuko dirulaguntzarako ikastaroaren iraupena baino bizitza baliagarri luzeagoa duten elementuak.

c) Ikastaroaren istripu eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, baldin eta ikastaroaren ezaugarri bereziak direla eta berariazko aseguru bat kontratatu behar bada edo zentro edo erakunde eskatzailearen aseguru orokorra zabaldu behar bada.

d) Ikastaroaren berariazko publizitate gastuak, erakunde eskatzaileari buruzko publizitate orokorreko gastuak izan ezik; gehienez ere 800,00 euro.

e) Erakunde eskatzaile edo onuradunak bere prestakuntza zentroan egiten dituen prestakuntza jardueretarako erabili ohi dituen instalazioak eta ondasunak ikastaroa egiteko erabiltzeak eragindako gastuak.

Apartatu honetako a), b) eta c) letretan jasotzen diren gastuen baturaren ehuneko 5 aplikatuko da. Instalazio eta ondasun horiek erabiltzeak eragindako gastuen barruan sartzen dira altzari, ordenagailu, material informatiko, arbel eta proiektagailuei dagozkien gastuak.

Zuzeneko prestakuntza birtuala denean ere, apartatu honetako a), b) eta c) letretan jasotako gastuen baturaren ehuneko 5eko gastu zenbateko egotziko da, prestakuntza hori erakunde eskatzailearen eta/edo onuradunaren egoitza batetik ematen bada, nahiz eta Araban ez egon.

Gastu horiei aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren bestelako instalazioak edo ondasunak erabiltzeagatik ordaindu beharreko beste alokairu gastu batzuk erantsi ahalko zaizkie, apartatu honetako a), b) eta c) letretako gastuen baturaren ehuneko 20ko mugaraino, baldin eta horien beharra behar bezala justifikatzen bazaio Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari (Vitoria-Gasteiztik kanpo egingo diren prestakuntza ekintzetarako erabiliko diren instalazio edo ondasunen alokairua, baldin toki horietan bere instalazioak ez badauka ikastaroa emango duen erakundeak; prestakuntza ekintzetarako ekipamendu espezifikoen eta normalean erabiltzen ez denaren alokairua, eta abar).

f) Gastu orokorrak eta kudeaketakoak; oro har, honelakotzat joko da apartatuko honetako a), b) eta c) letretan aipatzen diren gastuen baturaren ehuneko 10.

17.2. Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo egiten diren zuzeneko ikastaroetarako soilik, diruz lagundu ahal izango dira, ikastaroaren aurrez aurreko zatirako, irakasleek ikastaroa ematen den lekuraino egiten dituzten joan-etorrien gastuak.

Osorik edo zati batean modu birtualean ematen diren zuzeneko prestakuntza ikastaroen kasuan, ez da diruz lagunduko atal honetan jasotako gastua ikastaroaren zati birtualean.

Diruz lagunduko da bakarrik prestakuntza eman behar duen pertsonak (irakasle gastua fakturatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa) egoitza duen leku hurbilenetik prestakuntza ekintza emango den herrirainoko joan-etorrietarako, betiere, udalerrri desberdinak badira.

Gastu hori honela kalkulatu da: prestakuntza ekintza aurrez aurre ematen den egun bakoitzeko, aurreko paragrafoan jasotako distantzia kilometrotan bider bi eta 0,29 euro/km.

Aurkezten den eskaeran, adierazitako moduan kalkulatuak gastu horren aurrekontua erantsi behar da.

17.3. Dirulaguntzaren helburu diren ikastaroek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko foru araua onesten duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 20.bat.9 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute:

– Ikastaroa emateko eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik jasandako BEZa ikastaro horretako diruz lagundu daitezkeen gastuetan sartuko da.

– BEZaren Foru Arauaren 94. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ikastaroa emateko eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik jasandako BEZak ez du kenkaria egiteko eskubiderik emango BEZaren aitortzearen, aitortpena eginez gero.

17.4. Dirulaguntzarako onar daitezkeen gastu baten zenbatekoa 15.000,00 euro baino gehiago bada, eskatzaileak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza, ondasuna entregatu aurretik, baldin eta merkatuan horrenbeste hornitzaile badago.

Eskaintza hirukoitz hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta adierazi beharko da zein hautatu den eta horretarako zer irizpide erabili diren.

17.5. Eskaerako gastu partidaren bat Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez badago nahiko lotuta dirulaguntzaren xede den ikastaroarekin edo partidako gasturen baten zenbatekoa merkatuko balioa baino nahiko handiagoa bada, partida dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulutik kanpo utzi ahal izango da edo aldatu ahal izango da.

17.6. Ehuneko 5 aplikatuko da instalazioak edo ondasunak erabiltzeagatik, baldin eta edozein erakunde onuradunek ezin badu ikastaroa eman bere instalazioetan, beste ikastaro batzuetarako behar dituztelako, eta prestakuntza ekintza ohikoak ez diren instalazioetan egin behar badu, udalerrian bertan.

18. artikulua. Ikastaroko diruz lagun daitezkeen gastuak: zuzeneko prestakuntza ikastaroak

18.1. Zuzeneko prestakuntzako ikastaro bakoitzeko diruz lagundu daitezkeen aurrekontua, 2. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, honako zenbateko hauetako txikiena izango da:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastuen kopurua (17. artikuluko 1. apartatuan daude araututa).

b) Honako zenbateko hauen batura:

– 110 euro/ordu bider Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo aurrez aurre emandako ikastaroaren ordu kopurua.

– 90 euro/ordu bider aurreko puntuan adierazitakotik kanpo dauden ikastaroen ordu kopurua.

Ikastaroko 100 ordu lagundu ahal izango dira diruz, gehienez ere.

18.2. Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo ematen diren zuzeneko prestakuntzako ikastaroen kasuan, diruz lagundu daitezkeen aurrekontua honela kalkulatu da: artikuluko honen 1. apartatuan jasotako zenbatekoari 17. artikuluko 2. apartatuan jasotako diruz lagun daitezkeen gastua gehituta, 50 euroko mugarekin joan-etorriko egun bakoitzeko.

18.3. 1.b) apartatuaren arabera dagokion zenbatekoa ehuneko 30 murriztu ahal izango da, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak ikusten badu alde nabarmena dagoela aurreko deialdietako eskaeretan aurkeztutako aurrekontuen eta aurkeztutako amaierako memorietan behar bezala justifikatutako gastuen artean, antzeko gaiak eta/edo gastuak dituzten ikastaroetan.

18.4. 1.b) apartatuaren arabera dagokion zenbatekoa ehuneko 30 handitu ahal izango da, gehienez, baldin eta ikastaroa eman ahal izateko gastu handia egin behar bada material suntsikorretan. Horiek horrela, ikastaro batean material suntsikorretan gastu handia egin behar dela joko da baldin eta ikastaroan erabili beharreko material suntsikorraren kostua irakasleen kostua baino handiagoa bada. Hori justifikatzeko, eskaerarekin batera, erakunde onuradunak material suntsikorraren zein irakasleen gastuaren aurrekontu xehatua aurkeztu beharko du.

19. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak: teleprestakuntza ikastaroak

19.1. Teleprestakuntzako modalitateko ikastaroen kasuan, honako gastu hauek bakarrik lagundu ahal izango dira diruz:

a) Erabiliko den teleprestakuntza plataformarekin lotutako gastuak. Gastua behar bezala justifikatu behar da, bai eta ikastaroarekiko zuzeneko lotura ere (alokairua, amortizazioa...).

b) Ikastaroko tutoretza orduei soilik dagozkien tutoreen gastuak.

c) Ikastaroa aurrera eramateko behar-beharrezkoa den materiala erosteko gastuak.

Horri dagokionez, ikastaroan zehar kontsumitzen den materialaren gastua bakarrik onartuko da dirulaguntzarako; horren berri amaierako memoria aurkezten denean eman behar da.

Ez dira inola ere onartuko dirulaguntzarako ikastaroaren iraupena baino bizitza baliagarri luzeagoa duten elementuak.

d) Ikastaroaren istripu eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, baldin eta ikastaroaren ezaugarri bereziak direla eta berariazko aseguru bat kontratatu behar bada edo zentro edo erakunde eskatzailearen aseguru orokorra zabaldu behar bada.

e) Ikastaroaren berariazko publizitate gastuak, erakunde eskatzaileari buruzko publizitate orokorreko gastuak izan ezik; gehienez ere 800,00 euro.

f) Gastu orokorrak eta kudeaketakoak; oro har, honelakotzat joko da apartatu honetako a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren gastuen baturaren 15.

g) Beste edozein gastu, ikastaroa ematearekin zerikusi zuzena izan eta ikastaroa emateko beharrezkoa bada. Kasu horretan, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aztertuko du ea bidezkoa den dirulaguntza ematea.

19.2. Dirulaguntzaren helburu diren ikastaroek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko foru araua onesten duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 20.bat.9 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute:

– Ikastaroa emateko eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik jasandako BEZa ikastaro horretako diruz lagundu daitezkeen gastuetan sartuko da.

– BEZaren Foru Arauaren 94. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ikastaroa emateko eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik jasandako BEZak ez du kenkaria egiteko eskubiderik emango BEZaren aitorpenean, aitortpena eginez gero.

19.3. Dirulaguntzarako onar daitezkeen gastu baten zenbatekoa 15.000,00 euro baino gehiago bada, eskatzaileak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza, ondasuna entregatu aurretik, baldin eta merkatuan horrenbeste hornitzaile badago.

Eskaintza hirukoitz hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta adierazi beharko da zein hautatu den eta zer irizpide erabili diren hautaketarako.

19.4. Eskaerako gastu partidaren bat Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez badago nahiko lotuta dirulaguntzaren xede den ikastaroarekin edo partidako gasturen baten zenbatekoa merkatuko balioa baino nahiko handiagoa bada, partida dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulutik kanpo utzi ahal izango da edo aldatu ahal izango da.

20. artikulua. Ikastaroko diruz lagun daitezkeen gastuak: teleprestakuntza ikastaroak

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontua, ikastaroko, honako kopuru hauetan txikiena izango da:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastuen kopurua (19. artikuluko 1. apartatuan daude araututa).

b) 7,5 euro/ordu/parte hartzaile bider ikastaroaren gutxi gorabeherako ordu kopurua eta bider ikastaroan parte hartuko dutenen gutxi gorabeherako kopurua.

Ikastaroko 100 ordu lagundu ahal izango dira diruz, gehienez ere.

21. artikulua. Laguntzen zenbatekoak eta mugak

Ikastaro bakoitzeko emango den laguntzaren zenbatekoa 18. edo 20. artikuluetan zehaztutako diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100 izango da, kasuaren arabera, honako muga honekin:

– Zuzeneko prestakuntza ikastaroetarako: dirulaguntzarako onartzen diren gastuetatik (17. artikuluan ezartzen den moduan zehazten dira) aurreikusitako sarrerak kenduta geratzen den kopurua.

– Teleprestakundea modalitateko ikastaroetan: dirulaguntzarako onartzen diren gastuetatik (19. artikuluan ezartzen den moduan zehazten dira) aurreikusitako sarrerak kenduta geratzen den kopurua.

22. artikulua. Hautaketa eta balorazio irizpideak

22.1. Oro har, honako hauek izango dira balorazio irizpideak:

a) Ikastaroaren gai zerrenda (0 – 40 puntu), honela banatuta:

– Industria arloarekin (ekoizpena, muntaketa, mantentzea, biltegiatzea eta logistika) eta energia eta ingurumen eraginkortasunarekin lotutako ikastaroak: 0-40 puntu.

– Ekonomia, finantza, kudeaketa, ostalaritza, merkataritza edo gizarte zerbitzuen arloarekin lotutako ikastaroak: 0-30 puntu.

– Bestelako ikastaroak: 0- 20 puntu.

Talde horietako bakoitzaren barruan, puntuazioa graduatu egingo da, ikastaroaren zailtasun maila kontuan hartuta. Era berean, aplikazio informatikoekin lotutako ikastaroen kasuan, gaiaren arabera aurretik ezarritako mugak kontuan hartuta baloratuko dira.

Erakunde eskatzaileak justifikazioa aurkeztu behar du adierazi duen gaiaren sailkapenarenari buruz.

b) Ikastaroaren justifikazioa (0 – 20 puntu). Atal hau baloratzeko, 10. artikuluan aipatzen den aurkeztu beharreko dokumentazioak duen informazioa hartuko da oinarritzat, eta baita Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak hauteman dituen prestakuntza beharrak ere.

c) Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako pizgarria (0 – 10 puntu), honela banatuta:

– Kontratutako diren irakasleen artean emakumeak egotea:

– Zuzeneko ikastaroak:

- Emakumezko irakasleek emango duten ordu kopuruaren ehuneko ikastaroko ordu guztien ehuneko 40 eta ehuneko 60 bitartekoa bada, bi ehuneko horiek barne: 5 puntu.

- Emakumezko irakasleek emango duten ordu kopuruaren ehuneko ikastaroko ordu guztien ehuneko 60tik gorakoa bada: 3 puntu.

– Teleprestakuntza modalitatea:

- Emakumezko irakasleek egingo duten tutoretzako ordu kopuruaren ehuneko ikastaroko tutoretza ordu guztien ehuneko 40 eta ehuneko 60 bitartekoa bada, bi ehuneko horiek barne: 5 puntu.

- Emakumezko irakasleek egingo duten tutoretzako ordu kopuruaren ehuneko ikastaroko tutoretza ordu guztien ehuneko 60tik gorakoa bada: 3 puntu.

- Dirulaguntzaren xede den prestakuntzaren barruan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde gauzatu diren edo gauzatzekoak diren ekintza zehatzengatik: 0 puntutik 5 puntura.

Bereziki baloratuko da pizgarriak ematea emakumeek parte har dezaten sektore edo jarduera maskulinizatuetako ikastaroetan eta gizonek parte har dezaten sektore edo jarduera feminizatuetako ikastaroetan.

Egoki azaldu beharko dira lehen aipatutako ekintzak eta, hala dagokiolako amaierako memoria aurkeztu bada, egoki justifikatu beharko dira egindako ekintzak.

Horri dagokionez, erakunde eskatzaileek berariaz adierazi beharko dute eskaera orrietan ea nahi duten emakume eta gizonen arteko berdintasunagatiko pizgarriaren inguruko apartatu honetako bi puntuetako bakoitza baloratzea.

Irakasleei dagozkien eskakizunak betetzen ez badira eta/edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintzak gauzatzen ez badira eta berdintasunerako pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da.

d) Aurkeztutako eskaeraren kalitate orokorra (0 – 5 puntu):

– Eskaeran, edo aurkeztu ez duen dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin aurretik, aurkezten bada 10. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia: 5 puntu.

– Lehenengo errekerimenduaren ondoren 10. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia aurkezten bada, eta, hala, 2. errekerimendurik egin behar ez bada: 2 puntu.

– Gainerako kasuetan: 0 puntu.

e) Erakunde eskatzailearen ibilbidea ebatzitako azken deialdian (0 – 5 puntu)

Honela banatuko da puntuazioa, ebatzitako azken deialdiaren esleipenean onetsitakoekin alderatuta benetan egindako ikastaro kopuruaren arabera:

– Onetsitako ikastaro guztiak egin baziren: 5 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 75 eta ehuneko 100 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 4 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 50 eta ehuneko 75 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 2 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 25 eta ehuneko 50 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 1 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 0 eta ehuneko 25 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 0 puntu.

Aurreko deialdian eskatzaileak ez bazuen dirulaguntzarik eskuratu, puntu 1 jasoko du.

f) Langabezia egoeran dauden pertsonentzako prestakuntzarako pizgarria (0 – 10 puntu), honela banatuta (atal hauetako batengatik soilik emango dira puntuak):

– Ikastaroan izena eman duten pertsonen artean 5, gutxienez, langabeak izateko konpromisoa, baldin eta 13.4 eta 13.5 artikuluetan, kasuan kasukoa, jasotako baldintzak betetzen badituzte: 10 puntu.

– Ikastaroan izena eman duten pertsonen artean 3 edo 4, gutxienez, langabeak izateko konpromisoa, baldin eta 13.4 eta 13.5 artikuluetan, kasuan kasukoa, jasotako baldintzak betetzen badituzte: 5 puntu.

– Gainerako ikastaroak: 0 puntu.

Horri dagokionez, erakunde eskatzaileek berariaz adierazi beharko dute eskaera orrietan ea nahi duten langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzarako pizgarriaren atal hori baloratzea.

Langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzarako pizgarriaren atal horretako eskakizunak betetzen ez badira eta pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da.

f) apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona bat langabezia egoeran dagoela joko da ikastaroa hasten den egunean edo hasi aurreko 30 eguneko aldian uneren batean egoera horretan egon bada.

Langabezia egoera egiaztatzeko, erregistro publikoren batean (Lanbide, enplegu zerbitzua etab.) izena emanda dagoela egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da.

g) Ikastaroak Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo egiteko pizgarria (0 – 10 puntu).

Vitoria-Gasteizko Udalerritik kanpo emango diren zuzeneko ikastaroek, oso-osorik aurrez aurrekoak badira, 10 puntu izango dituzte, hala eskatzen badu laguntzaren erakunde eskatzaileak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskakizuna betetzen ez bada eta apartatu honetako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da, salbu eta ezinbesteko arrazoiek ikastaroa aurrez aurre egitea eragozten badute eta zuzenean birtualki egin behar bada. Horren berri eman beharko zaio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari. Kasu horretan, ez da aipatutako baliogabetzea egingo.

Gainerako ikastaroek, g) apartatu honetan, 0 puntu emango zaizkie.

22.2. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz berdina edo antzekoa diren zuzeneko bi ikastaro edo gehiago aurkezten baditu eskatzaile batek eta udalerritan berean egitekoak badira, eskuratutako guztizko puntuazioan murrizketa koefizientea aplikatuko da. Koefiziente hori handitu egingo da errepikatutako ikastaroen arabera, honela:

– Udalerritan berean errepikatutako lehenengo ikastaroa: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 20 murriztuko da.

– Udalerritan berean errepikatutako bigarren ikastaroa: eskuratutako puntuazioa ehuneko 30 murriztuko da.

– Udalerritan berean errepikatutako hirugarren eta hurrengo ikastaroak: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 40 murriztuko da.

22.3. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz berdina edo antzekoa diren teleprestakuntzako bi ikastaro edo gehiago aurkezten baditu eskatzaile batek eta udalerritan berean egitekoak badira, eskuratutako guztizko puntuazioan murrizketa koefizientea aplikatuko da. Koefiziente hori handitu egingo da errepikatutako ikastaroen arabera, honela:

– Lehen ikastaro errepikatua teleprestakuntzako modalitatean: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 20 murriztuko da.

– Bigarren ikastaro errepikatua teleprestakuntzako modalitatean: eskuratutako puntuazioa ehuneko 30 murriztuko da.

– Hirugarren eta hurrengo ikastaro errepikatuak teleprestakuntzako modalitatean: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 40 murriztuko da.

23. artikulua. Ikastaroaren hasieraren ziurtagiria

Zuzeneko prestakuntzaren modalitatean ematen diren ikastaroen kasuan, dirulaguntzaren xede den ikastaroa hasi ondoren, diruz lagundutako erakundeak ikastaroa hasi izanaren ziurtagiria bidali beharko du, behar bezala beteta, ikastaroa hasi eta 10 egun baliouduneko epean.

Teleprestakuntzako modalitatean ematen diren ikastaroen kasuan, diruz lagundutako erakundeak ikastaroa hasi izanaren ziurtagiria bidali beharko du, behar bezala beteta, ikastaroko ikasle guztiek prestakuntza hasi eta 10 egun baliouduneko epean.

Gainera, egiaztatu beharko da ikastaroa hasi duten ikasleetatik gutxienez bost pertsonak betetzen dutela 13.4 artikuluan jasotako baldintzaren bat zuzeneko prestakuntza modalitatean ematen diren ikastaroetarako, edo 13.5 artikuluan jasotako baldintzaren bat teleprestakuntza modalitatean ematen diren ikastaroetarako.

Era berean, 22.1.f) artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten eta langabezia dauken ikasleak erregistro publikoan (Lanbide, enplegu zerbitzua, etab.) erregistratuta daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

Langabezia egoeran dauden ikasleak erregistro publiko batean (Lanbide, INEM etab.) erregistratuta daudela frogatu beharko da, langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzari buruzko atala balioesteko eskatu bada eta atal hori funtsezkoa izan bada diru laguntza jasotzeko.

III. KAPITULUA

ZABALKUNDE JARDUNALDIAK

24. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

Dirulaguntza jaso ahal izango da teknologia berriekin, kudeaketa tresnekin, industria jarduerarekin edo industriari atxikitako zerbitzuekin loturik dauden zabalkunde jardunaldiak egiteko.

Ez zaie dirulaguntzarik emango 300,00 euro baino gutxiagoko diruz lagun daitezkeen gastuak dituzten jardunaldiei. Era berean, jardunaldia egin ondoren, diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbateko osoa 300,00 eurotik beherakoa bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da eta ez da ordainduko.

25. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko eska daitekeen jardunaldien gehieneko kopurua

Erakunde onuradun bakoitzak gehienez ere 5 jardunalditarako eska dezake dirulaguntza.

Lotutako erakundeek jardunaldi eskaera bat baino gehiago aurkezten badute, lotutako erakunde horiek, guztiek batera, 7 jardunaldi eskatu ahalko dituzte, gehienez ere.

Erakunde eskatzaileraren batek jardunaldi gehiago aurkeztuz gero, ofiziosz balio gabetuko dira eta ez dira baloratuko baimendutako gehieneko kopurua gainditzen dutenak, eskatu diren hurrenkeraren berean.

Bi erakunde eskatzaileraren edo gehiagoren arteko lotura badago eta 7 jardunaldi baino gehiago aurkezten badituzte, ofiziosz balio gabetuko dira eta ez dira balioetsiko gehienez baimendutako kopurua gainditzen dutenak. Arabako Foru Aldundiko erregistroan sarrera data zaharrena dutenak baloratuko dira, eta sarrera data bera badute, sarrera erregistro zaharrena dutenak hartuko dira aintzat. Zenbait jardunaldik sarrera erregistroko zenbaki bera badute, erakunde eskatzaileak jardunaldien zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.

26. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

26.1. Bakar-bakarrik, ondoko gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

a) Hizlariaren gastuak:

– Hitzaldiaren lansariak.

– Hizlaria Arabako Lurralde Historikoaren kanpotik etorri bada, joan-etorri, mantenu eta ostatu gastuak, halakorik izan bada, honako muga hauekin:

– Bidaia gastuak: tiketaren edo txartelaren zenbatekoa

– Auto partikularra: 0,29 euro kilometroko.

– Ostatua: 100 euro eguneko.

– Bazkaria/afaria: 21 euro.

– Gosaria (baldin eta ostatuaren gastuetan sartuta ez badago): 6 euro.

b) Jardunaldia gauzatzeko behar-beharrezkoa den materiala erosteko gastuak.

c) Jardunaldiaren istripu eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, baldin eta jardunaldiaren ezaugarri bereziak direla-eta berariazko aseguru bat kontratatu behar bada edo erakunde eskatzailearen aseguru orokorra zabaldu behar bada.

d) Jardunaldiaren berariazko publizitate gastuak, erakunde eskatzaileari buruzko publizitate orokorreko gastuak izan ezik; gehienez ere 300,00 euro.

e) Erakunde eskatzaile edo onuradunak egiten dituen jardueretarako erabili ohi dituen instalazioak eta ondasunak jardunaldia egiteko erabiltzeak eragindako gastuak. Apartatu honetako a), b) eta c) letretan jasotzen diren gastuen baturaren ehuneko 5.

Gastu horiei aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren bestelako instalazioak edo ondasunak erabiltzeagatik ordaindu beharreko beste gastu batzuk erantsi ahalko zaizkie, apartatu honetako a), b) eta c) letretako gastuen baturaren ehuneko 20ko mugaraino, baldin eta horien beharra behar bezala justifikatzen bazaio Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

f) Gastu orokorrak (argia, ura, berokuntza, telefonoa, eta abar) eta kudeaketakoak (prestakuntza eta administrazioa); oro har, honelakotzat joko da apartatu honetako a), b) eta c) letretan aipatzen diren gastuen baturaren ehuneko 10.

26.2. Inola ere ez dira diruz lagunduko jardunaldiaz gainera antolatzen diren gonbitek sortzen dituzten gastuak (esaterako, gosariak, bazkariak edo afariak), aurreko 1.a. apartatuan adierazi direnak salbu. Ez dira diruz lagunduko opariak edo beste edozein eskuzabaltasun.

26.3. Erakunde onuradunek jasandako balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) diruz lagundu daitekeela joko da zergetan konpentsatu ezin badute. Horretarako, eta aplikagarri bada, erreferentzia izango da aurreko ekitaldiko behin betiko hainbanaketa. Zalantzarik izanez gero, BEZa ez da diruz laguntzekoa izango, salbu eta erakunde onuradunak benetan frogatu ahal badu ezin duela haren kenkaririk aplikatu.

26.4. Dirulaguntzarako onar daitekeen gastu baten zenbatekoa 15.000,00 euro baino gehiago bada, eskatzaileak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza, ondasuna entregatu aurretik, baldin eta merkatuan horrenbeste hornitzaile badago.

Eskaintza hirukoitz hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta adierazi beharko da zein hautatu den eta zer irizpide erabili diren hautaketarako.

26.5. Eskaerako gastu partidaren bat Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez badago nahiko lotuta dirulaguntzaren xede den jardunaldiarekin, edo partidako gasturen baten zenbatekoa merkatuko balioa baino nahiko handiagoa bada, partida dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulutik kanpo utzi ahal izango da edo aldatu ahal izango da.

27. artikulua. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua jardunaldiko

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua, jardunaldiko, honako kopuru hauetan txikiena izango da:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuen kopurua (26. artikuluan araututa daude).
- 300,00 euro/ordu bider jardunaldiaren iraupen orduak egitearen emaitza.

28. artikulua. Laguntzen zenbatekoak eta mugak

Jardunaldi bakoitzeko emango den laguntzaren diru kopurua diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80 izango da, honako muga hauekin:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuetatik (26. artikuluan ezartzen den moduan zehaztuta) aurreikusitako sarrerak kenduta egitearen emaitza.
- Gehienez, 1.500,00 euro.

29. artikulua. Hautaketa eta balorazio irizpideak

29.1. Balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

a) Jardunaldiaren justifikazioa (0 – 70 puntu). Atal hau baloratzeko, 10. artikuluan aipatzen den aurkeztu beharreko dokumentazioak duen informazioa hartuko da oinarritzat, eta baita Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak hauteman dituen prestakuntza beharrak ere.

b) Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako pizgarria (0 – 10 puntu), honela banatuta:

– Kontratatuko diren hizlarien artean emakumeek duten parte hartzea:

- Jardunaldiko ordu kopuru osotik emakumezko hizlariak emango duten ordu kopuruaren ehuneko 40 eta ehuneko 60 bitartekoa bada (biak barne): 5 puntu.

- Jardunaldiko ordu kopuru osotik emakumezko hizlariak emango duten ordu kopuruaren ehuneko 60tik gorakoa bada: 3 puntu.

- Dirulaguntzaren xede den prestakuntzaren barruan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde gauzatu diren edo gauzatzekoak diren ekintza zehatzengatik: 0 puntutik 5 puntura.

Bereziki baloratuko zer pizgarri aplikatzen den emakumeek parte har dezaten sektore edo jarduera maskulinizatuetao jardunaldietan eta gizonen parte har dezaten sektore edo jarduera feminizatuetao jardunaldietan.

Egoki azaldu beharko dira lehen aipatutako ekintzak eta, hala dagokiolako amaierako memoria aurkezten bada, egoki justifikatu beharko dira egindako ekintzak.

Horri dagokionez, erakunde eskatzaileek berariaz adierazi beharko dute eskaera inprimakietan ea nahi duten emakume eta gizonen arteko berdintasunagatiko pizgarriaren inguruko apartatu honetako bi puntuetako bakoitza baloratzea.

Hizlariak dagozkien eskakizunak betetzen ez badira eta/edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintzak gauzaten ez badira eta berdintasunerako pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da.

c) Aurkeztutako eskaeraren kalitate orokorra (0 – 10 puntu):

– Eskaeran, edo aurkeztu ez den dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin aurretik, aurkezten badu 10. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia: 10 puntu.

– Lehenengo errekerimenduaren ondoren 10. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia aurkezten bada: 4 puntu.

– Gainerako kasuetan: 0 puntu.

d) Erakunde eskatzailearen ibilbidea ebatzitako azken deialdian (0 – 10 puntu). Honela banatuko da puntuazioa, ebatzitako azken deialdiaren ebazpenean onetsitakoekin alderatuta benetan egindako jardunaldi kopuruaren arabera:

– Onetsitako jardunaldi guztiak egin baziren: 10 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 75 eta ehuneko 100 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 7 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 50 eta ehuneko 75 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 4 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 25 eta ehuneko 50 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 2 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 0 eta ehuneko 25 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 0 puntu.

Aurreko deialdian eskatzaileak ez bazuen dirulaguntzarik eskuratu, 2 puntu jasoko ditu.

29.2. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz berdinak edo antzekoak diren bi jardunaldi edo gehiago aurkezten baditu eskatzaile batek eta udalerrri berean egitekoak badira, eskuratutako guztizko puntuazioan murrizketa koefizientea aplikatuko da. Koefiziente hori handitu egingo da errepikatutako jardunaldien arabera, honela:

– Udalerrri berean errepikatutako lehenengo jardunaldia: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 20 murriztuko da.

– Udalerrri berean errepikatutako bigarren jardunaldia: eskuratutako puntuazioa ehuneko 30 murriztuko da.

– Udalerrri berean errepikatutako hirugarren jardunaldia: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 40 murriztuko da.

IV. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK KUDEATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURAK

30. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

30.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAean argitaratu ondorengo egunean hasiko da eta 2024ko martxoaren 22an, 14:00etan, bukatu.

30.2. Eskaerak modu elektronikoan aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoan, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

AFaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektroniko baten edo BAKO sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/baimenak>.

Salbuespenez, pertsona juridikoaren ordezkariaren ziurtagiri hori ez zaie eskatuko ikastetxe publikoei, baldin eta zenbait ikastetxek IFK komun bakarra badute. Kasu horretan, legezko ordezkariaren sinadura onartuko da, pertsona fisikoen ziurtagiri elektronikoarekin batera, eta, gainera, hezkuntza administrazio eskudunak ordezkari hori izendatu duela egiaztatzen duen izendapena ere erantsi beharko da.

30.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta 10. artikuluan zehaztutako agiriak erantsi.

31. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura

31.1. Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

31.2. Erakunde eskatzaile batek prestakuntza ekintzaren batengatik jaso dezakeen dirulaguntzari uko egiten badio dirulaguntzak esleitu aurretik, prestakuntza ekintza hori baztertu egingo da dirulaguntzen esleipena kalkulatzeko.

V. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO PROZEDURAK

32. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaintzeko eskaera aurkezteko modua, tokia eta epea

32.1. Prestakuntza ekintzak bitarteko elektronikoaren bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan.

Dirulaguntza justifikatzeko bide elektronikoan aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute, fideltasunez, jatorrizko agiriarekin; agiri hori erakunde onuradunak edukiko du eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura jarri beharko du hala eskatzen zaionean. Erakunde onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi beharko du aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta elektronikoki aurkeztutako dokumentuak jatorrizkoekin bat datozela.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

Ordainketa egiteko erabili diren fakturen eta frogagiriaren jatorrizkoak aurkezteko eskatzen bada, edo memorian aurkeztutako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko beste edozein agiri, eta ez badira aurkezten edo behar bezala justifikatzen horretarako ezarri den epean, dirulaguntza balio gabetu edo ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu ahal izango da; dirulaguntza jadanik ordainduta badago, oso-osorik edo zati bat itzultzeko eskatu ahal izango da, dagozkion berandutze interesekin batera.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu, eta ikusten bada ez datorrela bat jatorrizkoarekin, dagozkion zatia itzultzeko eskatuko da.

32.2. Oro har, frogagiriak prestakuntza ekintza amaitu eta gero aurkeztu ahal izango dira, eta dirulaguntzaren kobrantza eskatu, urtebeteko gehieneko epearen bukaera arte itxaro beharrik gabe. Hori da, hain zuzen ere, dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko modu egokia.

Hala ere:

– Zuzeneko prestakuntzaren kasuan, hiru epemuga ezartzen dira agiriak aurkezteko eta dirulaguntzaren ordainketa eskatzeko:

a) 2024ko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren zuzeneko prestakuntza ekintzen frogagiriak 2024ko urriaren 18rako (14:00ak arte) aurkeztu behar dira, beranduenez.

b) 2024ko urriaren 1etik 31ra bitartean (bi egun horiek barne) amaitzen diren zuzeneko prestakuntza ekintzen frogagiriak 2024ko azaroaren 15erako (14:00ak arte) aurkeztu behar dira, beranduenez.

c) 2024ko azaroaren 1etik 22ra bitartean (bi egun horiek barne) amaitzen diren zuzeneko prestakuntza ekintzen frogagiriak 2024ko azaroaren 29rako (14:00ak arte) aurkeztu behar dira, beranduenez.

– Teleprestakuntzaren kasuan, ikastaro bateko ikasle guztiek prestakuntza osoa amaitzen dutenean, 15 egun balioduneko epea izango da, ikastaroa amaitzen denetik zenbatzen hasita, dokumentazioa aurkezteko eta dirulaguntza ordaintzeko eskatzeko. Nolanahi ere, justifikazio agiriak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 29an amaituko da (14:00ak arte).

32.3. 34. artikuluko 8. apartatuan adierazitako agiriak aurkezteko epea 2025ko apirilaren 11n bukatuko da (14:00ak arte).

32.4. Frogagiriak epez kanpo aurkezten badira, gerta liteke emandako dirulaguntza balio gabetzea.

33. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa

33.1. Behin diruz lagundutako prestakuntza ekintza behar bezala justifikatu eta gero, eta dirulaguntza eman zuen ebazpenean zehaztutako betekizun eta baldintza guztiak beteta, kasuan kasuko dirulaguntzaren likidazioa egingo da.

33.2. Ordainduko den dirulaguntzaren kopurua, gehienez ere, esleitzeko ebazpenean onartutakoa izango da, eta aurkeztutako frogagiriei 9., 13., 17., 18., 19., 20. eta 21. artikuluetan ikastaroetarako eta 9., 24., 26., 27. eta 28. artikuluetan jardunaldietarako ezarritakoa aplikatuko zaie.

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ikastaroak memorian izango duen ordu kopurua ezingo da izan aurkeztutako eskabidean adierazitako ordu kopurua baino handiagoa.

33.3. 34. artikuluko 8. apartatuan adierazitako agirietakoren bat aurkezteke egonez gero, aukera izango da dirulaguntza justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordaintzeko.

34. artikulua. Emandako dirulaguntzak ordaindu daitezela eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak

34.1. Justifikatu beharreko aurrerakin gisa justifikatzen denaren ordainketa egingo da erakunde onuradunak justifikazio kontu erraztua eta 2. apartatuan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jaso behar du:

a) Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak jasotzen dituena.

Baldin eta diruz lagundutako jardueran pertsonak parte hartzen badute, sexu aldagaia erantsi beharko da memorian emandako informazioan, baldin eta informazio hori izateko modua badago.

b) Jardueraren gastuen eta diru sarreraren sailkapen zerrenda. Honako hauek adierazi beharko dira: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

34.2. Enplegurako prestakuntza ikastaroen kasuan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da justifikazio kontu erraztuarekin batera:

a) Ikastaro bakoitzerako, emateko modalitatea edozein dela ere:

– Gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatuan agertzen den gastu eta zenbateko bakoitza prestakuntza ekintzari egozteko arrazoien azalpena.

– Jardunaldiari egotzitako diruz laguntzeko gastuei dagozkien langile gastuen fakturak eta ziurtagiriak.

– Erakunde onuradunak kontratatutako irakasle edo tutoreen gastuak egozten baditu, eta baldin eta 7. artikuluan aipatutakoaren araberrako kanpo langiletzat hartzen badira eta prestakuntza ekintza bat emateko besteren kontura kontratatu badira, lan kontratuaren kopia erantsi beharko da.

– Bertaratze matrikulengatik, babesletzengatik edo deialdi honetan emandako dirulaguntzatik kanpoko beste edozein arrazoiengatik diru sarrerak lortu badira, diru sarrera horiek kobratu izanaren justifikazioa aurkeztuko da.

– Eskuera inprimakian adierazi bada balora dadila “emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren pizgarria” apartatua, horretarako gauzatu diren ekintza zehatzak frogatzeko agiriak aurkeztu behar dira.

– Prestakuntza ekintzari buruzko berriazko publizitatearen lekukotasun grafikoa, halakorik izan bada.

b) Zuzeneko prestakuntzaren modalitatean emandako ikastaroen kasuan, a) apartatuan adierazitakoaz gain, honako hauek aurkeztu behar dira:

– Prestakuntza ekintzak iraun duen ordu kopuruaren ziurtagiria, hura eman edo burutu duen pertsonak emana.

– Zuzeneko prestakuntzaren aurrez aurreko zatiari dagokionez, prestakuntza ekintzan parte hartu duten pertsonen zerrenda aurkeztu behar da, eta bakoitzari buruzko datu hauek adierazi:

- Zer egun zehazetan joan den prestakuntzara.

- Bertaratu den egun bakoitzeko, prestakuntza ekintzan emandako ordu kopurua.

- Prestakuntza ekintzan emandako guztizko ordu kopurua.

Horretarako, erakunde prestatzaileak zuzeneko bertaratze parte bat egin beharko du egunero, eta irakasleek eta bertaratutako ikasleek sinatu beharko dute.

– Zuzeneko prestakuntzaren zati birtualari dagokionez, prestakuntza ekintzan parte hartu duten pertsonen zerrenda aurkeztu behar da, eta bakoitzari buruzko datu hauek adierazi:

- Zer egun zehatzetan konektatu den prestakuntzara.
- Konektatu den egun bakoitzeko, prestakuntza ekintzara konektatuta egon den ordu kopurua.
- Prestakuntza ekintzara konektatuta egon den guztizko ordu kopurua.

Horretarako, erakunde prestatzaileak bertaratze birtualeko parte bat egin beharko du egunero, eta irakasleek sinatu beharko dute.

- Zuzeneko aurrez aurreko prestakuntza ikastaroetan irakasleen joan-etorrien gastuak egozten badira, prestakuntza eman duen edo duten pertsonak edo pertsonak sinatutako adierazpen bat aurkeztu beharko da. Bertan adierazi beharko da zein egunetan egin behar izan dituen edo dituzten joan-etorriak ikastaroa emateko eta zenbat kilometro dauden prestatzaileak (irakasle gastua fakturazten duen pertsona fisikoa edo juridikoa) egoitza duen lekurik hurbilenetik prestakuntza ekintza eman duen herriraino.

c) Teleprestakuntzaren modalitatean emandako ikastaroen kasuan, a) apartatuan adierazitakoaz gain, honako hauek aurkeztu behar dira:

- Prestakuntza ekintzak iraun duen ordu kopuruaren ziurtagiria, teleprestakuntza eman duen erakundeak emana.

- Parte hartzaile bakoitzaren tutoretzen ordu kopuruaren ziurtagiria, tutoretza egin duen pertsonak emana.

- Prestakuntza jaso duten pertsonen zerrenda, bakoitzari buruzko datu hauek adierazita:
- Zer egun zehatzetan konektatu den prestakuntza jasotzeko.
- Konektatu den egun bakoitzeko, zenbat ordutan jaso duen prestakuntza.
- Prestakuntza ekintzara konektatuta egon den guztizko ordu kopurua.
- Egindako tutoretzen guztizko ordu kopurua.

Horretarako, erakunde prestatzaileak prestakuntzako parte hartzaile bakoitzari egindako jarraipenen inguruko agiria egin beharko du.

34.3. Zabalkunde jardunaldien kasuan, justifikazio kontu erraztuarekin batera, honako agiriak aurkeztu behar dira:

– Gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatuan agertzen den gastu eta zenbateko bakoitza prestakuntza ekintzari egozteko arrazoien azalpena.

– Jardunaldiari egotzitako diruz laguntzeko gastuei dagozkien langile gastuen fakturak eta ziurtagiriak.

– Erakunde onuradunak kontratatutako hizlarien gastuak egozten baditu, eta baldin eta 7. artikuluan aipatutakoaren arabera kanpo langiletzat hartzen badira eta prestakuntza ekintza bat emateko besteren kontura kontratatu badira, lan kontratuaren kopia erantsi beharko da.

– Prestakuntza ekintzak iraun duen ordu kopuruaren ziurtagiria, hura eman edo burutu duen pertsonak emana.

– Hizlarien joan-etorrien gastuak egozten badira, horien justifikazioa aurkeztu beharko da.

– Bertaratze matrikulengatik, babesletzengatik edo deialdi honetan emandako dirulaguntzatik kanpoko beste edozein arrazoirengatik diru sarrerak lortu badira, diru sarrera horiek kobratu izanaren justifikazioa aurkeztuko da.

– Eskaera inprimakian adierazi bada balora dadila “emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren pizgarria” apartatua, horretarako gauzatu diren ekintza zehatzak frogatzeko agiriak aurkeztu behar dira.

– Prestakuntza ekintzari buruzko berariazko publizitatearen lekukotasun grafikoa, halakorik izan bada.

34.4. Fakturak ondasuna edo zerbitzua hornitzen duenak eginak izan behar dira; gainera, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak, fakturazio betebeharren arautegia (fakturazio arautegia) onesten duenak, ezartzen duena bete beharko dute. Faktura bat ez bada egiten 18/2013 Foru Dekretuaren 11. artikulua ezartzen duen epean, ez da onartuko dena delako gastua justifikatzeko.

34.5. Erakunde onuradunak kontratatutako langileen gastuei dagokienez, egotzitako gastua justifikatzen duten nominak aurkeztu behar dira, langileen izen zerrendarekin batera eta Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioaren ordainagiriarekin batera.

34.6. Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

34.7. Justifikazio kontu erraztua aurkezteko unean artikulua honen 8. apartatuan adierazitako dokumentazioaren bat badago, dokumentazio hori aurkeztu ahal izango du justifikazio kontu erraztuarekin batera, espedientearen administrazio izapideak arintzeko.

34.8. Jasotako aurrerakina justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Fakturak ordaindu izanaren frogagiriak, diruz lagundu daitezkeen gastuak 500,00 eurotik gorakoak (BEZa barne) direnean. Horretarako, faktura horien ordainketa frogagiriak aurkeztu beharko dira.

b) Baldin eta nominak aurkeztu badira diruz lagundu daitezkeen 500,00 eurotik gorako langile gastuen frogagiri gisa, nomina horiek ordaindutzat joko dira honako agiri hauetako edozein aurkeztuta:

– Nominak, langileak sinatuta; zenbatekoa kobratu dela zehaztu behar da.

– Langileak izenpetutako idazkia, langileak zenbatekoa kobratu duela zehazten duena, dagokion hila edo kontzeptua adierazita.

– Nominen ordainketaren banku laburpena.

c) Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaindu direla frogatzeko, Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioaren ordainagiria onartuko da, finantza erakunde batek zigilatuta, edo, hala behar denean, kotizazioen ordainketaren banku laburpena edo frogagiri baliokidea.

d) Ordainketak 500,00 eurotik gorakoak badira (BEZa barne) eta horietan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZa), lan etekinetatik sortutako atxikipenak izan ezik, edo sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipena egin behar bada, dirulaguntzaren erakunde onuradunak PFEZaren edo sozietateen gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoen sarrera justifikatu beharko du.

Memoria aurkezteak baimena emango dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari Arabako Foru Ogasunean behar diren egiaztapenak egiteko.

Atxikipenak Arabakoa ez den beste zerga administrazio bati aurkeztu behar bazaizkio, diru laguntza esleitu zaion erakundeak aurkeztu beharko ditu PFEZaren atxikipenak egin diren urteko 110 eta 115 ereduaren kopia bana, dagozkien ordainagiriekin batera, bai eta urteko 190

eta 180 eredu en kopiak ere, behar bezala zigilatuz, egindako atxikipenak ordaindu direla egiaztatzen.

110 eta 115 inprimakiek bankuaren ordainketa zigilua eduki beharko dute, edo bankuko ordainagiri egokia erantsita eraman.

Diruz lagundutako gastuek 17., 19. eta 26. artikuluetan aipatzen diren diruz lagundu daitezkeen gastuei aplikatu beharreko portzentajeak aplikatzearen ondorioz jaso badute dirulaguntza, ez da beharrezkoa izango PFEZaren edo sozietateen zergaren konturako atxikipenen sarrera justifikatzea.

Titulartasun publikoko erakundeek ez dute zertan aurkeztu apartatu honetako c) eta d) le-tretan eskatzen dena.

Ez dira onartuko eskudirutan egindako ordainketak, baldin eta horien zenbatekoa ordainketa egiten den unean indarrean dagoen araudian ezarritako zenbateko bera edo handiagoa bada (edo horren kontrabalioa atzerriko monetan).

34.9. Aurreko ataletan adierazitako edozer betetzen ez bada, ordaindutako dirulaguntza itzultzeko eskaera egingo da.

35. artikulua. Erakunde onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Prestakuntza ekintza baterako dirulaguntza jasotzen duten erakundeek iragarri egin beharko dute prestakuntza ekintzak Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso duela.

Horretarako bi aukera daude: horren berri eman ikasleei banatzen dieten dokumentazioan edo prestakuntza ekintzaren publizitatean agertu.

VI. KAPITULUA

BESTE XEDAPEN BATZUK

36. artikulua. Eskaeran sartutako datuak aldatzea

36.1. Diruz lagundutako prestakuntza ekintzei dagokienez, aurkeztutako eskaerek jasotzen dituzten datuetan aldaketarik egonez gero, horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

Informazio hori ikusita, Arabako Foru Aldundiak aukeran izango du hasiera batean esleitutako zenbatekoa aldatzea edo, prestakuntza ekintzaren ezaugarriak edo hura gauzatzeko baldintzak nabarmen aldatzen badira, aukeran izango du esleitutako dirulaguntza baliogabetzea.

36.2. Hala ere, ez da beharrezkoa izango diruz lagundutako prestakuntza ekintza gauzatzeko aurreikusitako egunen aldaketaren berri ematea, baldin eta jarduera bukatzen den egunak ez badakar berekin 32.2 artikuluan memoria aurkezteko ezarritako epearen aldaketarik eta ez badu gairitzen 9. artikuluan ezarritako data (2024ko azaroaren 22a).

36.3. Eskaeran jasotako datuak aldatu beharra eragin duten arrazoiak jakinarazten ez badira, dirulaguntza galdu edo murriztu ahal izango da, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz aldaketa horrek dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea ekarri badu.

37. artikulua. Azpikontratazioa

37.1. Oinarri hauetan deskribatzen diren erakunde onuradunek hirugarren pertsonekin itundu dezakete horietan aipatzen diren eta laguntza jaso dezaketen jarduerak osorik edo zati batean gauzatea. Azpikontratazioak honako hauek bete beharko ditu: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 11/2016 Foru Arauaren 27. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onetsi zuen uztailaren 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikulua.

37.2. Erakunde eskatzaileak diruz lagundutako jarduera osorik edo zati batean azpikontratatzan badu lotura duen pertsona batekin, aldez aurreko baimena eskatu beharko du eskaera aurkezteko unean, eta, horretarako, nolana ere, azpikontratatu dituen zerbitzuen prestazioaren aurrekontua aurkeztu beharko du, lotura duen pertsonak edo erakunde hornitzaileak emandakoa.

Azpikontratazio baimenaren eskaeran adierazi beharko da zer lotura mota dagoen azpikontratazioa egingo duen entitate lotetsiarekin.

38. artikulua. Istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguruak

Dirulaguntzak jasotzen dituen erakundearen kontura izango da diruz lagundutako pres-takuntza ekintzak egiten ari diren bitartean istripuengatik eta erantzukizun zibilagatik izan dai-tezkeen arriskuen estaldura.

39. artikulua. Araudi aplikagarria

Deialdi hau oinarri hauek arautzen dute, baita Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Admin-istrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren esku-menen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileek ere (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua).

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauexek arautuko dute: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarreko aurrekontu anto-lamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, indarrean dagoen araudia apli-katuko da, eta, zehazki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko arau esparrua, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu batagina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.

40. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahal-mena ematen zaio deialdi honen oinarri espezifikoak interpretatzeko eta oinarriok behar bezala aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ebazpenen bitartez garatzeko.

41. artikulua. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, horren berri eman beharko zaio, ahalik eta lasterren eta idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Susta-penaren Zuzendaritzari. Hark eman den dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposa dezake.

Deialdi honetan aurreikusitako diru laguntza bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta xede beragatik emandako beste edozein diru laguntza edo laguntza motarekin.

Deialdi honen bidez lortutako laguntzari besterik gehitzen bazaio, edozein dela ere haren izaera (publikoa edo pribatua) edo hura ematen duen organoa, laguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua baino handiagoa.

42. artikulua. Espedienteak beste laguntza programa batzuetara aldatzea

Aurkezten den eskaeraren bat ezin bada izan deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren aburuz hobeto

egokitzen bazaio berak kudeatzen duen beste deialdi bateko dirulaguntzei eta horrelako baten onuradun izateko aukera badu, deialdi horretarako aldatuko du.

43. artikulua. Azken klausula

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta dirulaguntzen arloan honako hauek ematen dituzten xedapenen mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko 2024rako aurrekontua gauzatzeari buruzko indarreko Foru Araua, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.